

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

6129

AGINDUA, 2021eko azaroaren 29koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, Ertzaintzako langile funtzionarioen ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundearen deialdia egiten duena.

Ertzaintzaren barrutian adierazgarriak diren bi erakunde sindikalek luzatu duten proposamena jaso ondoren, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan (abuztuaren 6ko EHAA, 153. zk.) aurreikusitakoaren arabera, eta Ertzaintzako langile funtzionarioen ordezkari sindikalak aukeratzeko hauteskundeak eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuko 3. artikuluan xedatutakoaren babespean (martxoaren 18ko EHAA, 53. zk.) –urriaren 11ko 392/1994 Dekretuak (urriaren 25eko EHAA, 203. zk.) eta otsailaren 5eko 18/2019 Dekretuak (otsailaren 12ko EHAA, 30. zk.) aldatu zuten 50/1993 Dekretua–, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ertzaintzako funtzionarioen sindikatuetaorde ordezkariak aukeratzeko hauteskundearen deialdia egitea. Hauteskundeak uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez (abuztuaren 6ko EHAA, 153. zk.) onartutako Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren IV. tituluko VII. kapituluaren eta Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren eraketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuan (martxoaren 18ko EHAA, 53. zk.) aurreikusitako araubidearen arabera egingo dira –urriaren 11ko 392/1994 Dekretuak (urriaren 25eko EHAA, 203. zk.) eta otsailaren 5eko 18/2019 Dekretuak (otsailaren 12ko EHAA, 30. zk.) aldatu zuten 50/1993 Dekretua–, eta agindu honetan xedatutakoan oinarrituz beteko dira.

Bigarrena.– Agindu honen bidez iragarritako hauteskundeak 2022ko otsailaren 10ean egingo dira.

Hirugarrena.– Hauteskunde-barrutiak hauteskunde-ataletan eta -mahaietan antolatzen dira, eta agindu honen eranskinean adierazten da zer eratan geratzen diren finkatuta.

Laugarrena.– Errolda orokorra, hauteskunde barrutien arabera, jarraian adierazitako eran finkatzen da:

Hauteskunde-barrutia	Errolda
Araba	1.471
Bizkaia	4.034
Gipuzkoa	2.092
Euskal Autonomia Erkidegoa, guztira	7.597

Bosgarrena.– Hauteskunde-barruti bakoitzean aukeratu beharreko ordezkari-kopurua, uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Poliziari buruzko

Legearen testu bateginaren 119. artikuluan (abuztuaren 6ko EHAA, 153. zk.) eta martxoaren 16ko 50/1993 Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako hau izango da:

Hauteskunde barrutia	Ordezkarri-kopurua
Araba	17
Bizkaia	26
Gipuzkoa	20

Seigarrena.– Hauteskunde-kanpaina 2022ko urtarrilaren 25an hasi eta otsailaren 8an bukatuko da.

Zazpigarrena.– Hauteskunde Administrazioako organoetako kideek, bilkuretara joaten direnean, Ertzaintzan egindako zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko urtarrilaren 17ko 5/2012 Dekretuan aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dituzte.

Zortzigarrena.– 1.– Segurtasun Sailak bermatu egingo du hauteskundeetako dokumentazioa behar adinako kopuruan jartzen dela eskura, eta ziurtatu egingo du, halaber, dokumentazio hori Hauteskunde Batzordeari emango zaiola, ondoren hauteskunde mahaletara bidal dadin.

2.– Segurtasun Sailak Hauteskunde Administrazioaren organoen eskuetan jarriko ditu hautes-tontziak, kabinak eta hauteskunde prozesua burutzeko beharrezkoak diren gainerako bitarteko materialak eta giza baliabideak.

3.– Segurtasun Sailak hauteskunde-dokumentazioa behar adinako kopuruan jarriko du hautagaitzat iragarri diren organizazio, federazio nahiz konfederazio sindikalen esku, hauteskunde prozeduraren barruan bakoitzari dagozkion eginkizunak eta erantzukizunak betetzeko modua izan dezaten.

Bederatzigarrena.– Hauteskunde Batzordearen egoitza Erandion dago (Larrauri Mendotxe Bidea 18).

Hamargarrena.– Agindu honek amaiera eman dio administrazio bideari, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek EAEko Auzitegi Nagu-siko administrazioarekiko auzien salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Hamaikagarrena.– Agindu honek EHAA-n argitara ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 29a.

Jaurkitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

ERANSKINA

Araba

Hauteskunde-atala	Hauteskunde-mahaia	Kokapena	Unitateak
Vitoria-Gasteiz	1	Arkauti	Erakundeen Segurtasuneko Burutza Nagusia Babes eta Segurtasun Unitatea Esku-hartze Unitatea Ertzainor Unitatea Eraikinen Segurtasuneko Unitatea Koordinazio eta Lankidetzaren Unitatea Idazkaritza Nagusia
Vitoria-Gasteiz	2	Iradier Eraikuntza	Arabako Ikerketa Kriminalerako Lurralde Zerbitzua Miñoien Atala Arabako Trafikoko LU Ikerketa Kriminalerako eta PJKo Burutza Bizkaiko Inteligentziaren Lurralde Bulegoa
Vitoria-Gasteiz	3	Ertzain-etxea	Vitoria-Gasteizko Ertzain-etxea Arabako Lurralde Burutza Arabako Lurraldeko AKZ Joko eta Ikuskitze Unitatea Bozeramailetza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua Arabako Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua
Laudio	Bakarra	Ertzain-etxea	Laudioko Ertzain-etxea
Laguardia	Bakarra	Ertzain-etxea	Guardiako Ertzain-etxea

Bizkaia

Hauteskunde-atala	Hauteskunde-mahaia	Kokapena	Unitateak
Bilbao	Bakarra	Ertzain-etxea	AKZ Nagusia Foralen Atala Bilboko Ertzain-etxea Joko eta Ikuskizun Unitatea Euskadiko Trafikoa eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko Trafiko eta Segurtasuneko Burutza Nagusia
Balmaseda	Bakarra	Ertzain-etxea	Balmasedako Ertzain-etxea
Ibaizabal	1	Ertzain-etxea Basauri	Ibaizabalgo Ertzain-etxea (Basauri)
	2	Ertzain-etxea Galdakao	Ibaizabalgo Ertzain-etxea (Galdakao)
Durango	Bakarra	Ertzain-etxea	Durangoko Ertzain-etxea
Erandio	1	Polizia Eraikuntza Nagusia	Bozeramailetza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua Kanpo Lankidetzako Burutza Ertzaintzaren Burutza Prestakuntza Koordinatzeko Zerbitzua Herritarren Babeseko Alorra Ekintzen Plangintzarako eta Azpiegituren Babeserako Burutza Bizkaiko Lurralde Burutza Bizkaiko Inteligentziako Lurralde Bulegoa Ikerketa Kriminala eta PJko Burutza Segurtasun Pribatua Polizia Zientifikoko Burutza Inteligentzia Bulego Nagusiaren Burutza Ikerketa Kriminala Alorreko Burutza
Erandio	2	Polizia Eraikuntza Nagusia	Barne Arazoetako Burutza AKZ Nagusia Bizkaiko Ikerketa Kriminala Lurralde Zerbitzua Bizkaiko Lurraldeko AKZ Idazkaritza Nagusia Koordinazio eta Lankidetzaren Unitatea Bizkaiko Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua
Erandio	3	Ertzain-etxea	Erandioko Ertzain-etxea
Erandio	4	Ertzain-etxea	Getxoko Ertzain-etxea Bizkaiko Trafikoko LU
Gernika	Bakarra	Ertzain-etxea	Gernikako Ertzain-etxea
Muskiz	Bakarra	Ertzain-etxea	Muskizko Ertzain-etxea
Ondarroa	Bakarra	Ertzain-etxea	Ondarroako Ertzain-etxea
Sestao	Bakarra	Ertzain-etxea	Sestaoko Ertzain-etxea
Iurreta	Bakarra	Ertzain-etxea	Laguntza Taktikoko Burutza Nagusia Brigada Mugikorraren Unitatea Zaintza eta Erreskate Unitatea Zaintza eta Erreskate Unitatea

Gipuzkoa

Hauteskunde-atala	Hauteskunde-mahaia	Kokapena	Unitateak
Oiartzun	Bakarra	Lurraldeko Egoitza	Bozeramailletza, Komunikazio eta Protokolo Zerbitzua Gipuzkoako Lurralde Burutza Gipuzkoako Inteligentziako Lurralde Bulegoa Gipuzkoako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua Gipuzkoako Lurraldeko AKZ Gipuzkoako Herritarren Babeseko Lurralde Zerbitzua Gipuzkoako Trafikoko LU Kanpo Lankidetzako Burutza
Donostia	Bakarra	Ertzain-etxea	Donostiako Ertzain-etxea Ikerketa Kriminalako eta PJKo Burutza Joko eta Ikuskizun Unitatea Mikeleteen Atala
Deba-Urola	1	Ertzain-etxea (Bergara)	Deba-Urolako Ertzain-etxea (Bergara)
Deba-Urola	2	Ertzain-etxea (Zumarraga)	Deba-Urolako Ertzain-etxea (Zumarraga) Gipuzkoako Trafikoko LU
Oria	1	Ertzain-etxea (Tolosa)	Oriako Ertzain-etxea (Tolosa)
Oria	2	Ertzain-etxea (Beasain)	Oriako Ertzain-etxea Oria (Beasain)
Urola Kosta	1	Ertzain-etxea (Zarautz)	Urola Kostako Ertzain-etxea (Zarautz)
Urola Kosta	2	Ertzain-etxea (Azkoitia)	Urola Kostako Ertzain-etxea (Azkoitia)
Eibar	Bakarra	Ertzain-etxea	Eibarko Ertzain-etxea Gipuzkoako Ikerketa Kriminalako Lurralde Zerbitzua
Hernani	Bakarra	Ertzain-etxea	Hernaniko Ertzain-etxea
Irun	Bakarra	Ertzain-etxea	Irungo Ertzain-etxea
Errearteria	Bakarra	Ertzain-etxea	Errearteriako Ertzain-etxea